

Concentración viernes 30, 17:30 en la sede de eitb

IÑAKI BILBAO GOSE GREBAN :: 28/10/2020

Hurrengo ostiralean, Iñaki Bilbao "Txikito" Lezamako preso politikoak 50 egun beteko ditu gose eta komunikazio greban. Txikitok militante politiko gisa aurrera daramatzan borroka eta hautua, Euskal Herri independente, sozialista eta euskalduna baten alde bere bizitzan zehar burutu duen

borrokaren jarraipen bezala ulertu behar ditugu. Borroka hau dela medio, 36 urte eman ditu preso Txikitok, espainiar zein frantziar estatuek preso politikoak suntsitzeko darabilten gerra neurri eta jazarpena bere hezurretan era gordinen ezagutu eta pairatu behar izan dituelarik.

Txikitoaren egungo borroka, beraz, ezin da inolaz ere, norbanako batek bere kabuz abiatutako ekimen gisa ulertu. Haatik, herri hau murgilduta dagoen jazarpen dinamikaren baitan, Txikitok militante politiko gisa bere konpromisoa eta Euskal Herriko engaiamendua irizpidetzat izanda, borrokari eusteko halabeharrez hartutako erabakia izan da. Izan ere, Txikitok borrokarako hautatu duen moldearekin, ezin ken diezaioketen eta oraindik bere menpe dagoen azken eremua baliatzea erabaki du, bere gorputza eta bizitza, alegia. Gauzak horrela, Txikito preso mantentzen duten horiek dira, hain zuzen, Txikitok, preso politikoek zein Euskal Herriak pairatzen dituzten zapalkuntza eta jazarpenaren erantzule, sortu duten egoeratik eratorritako ondorioak ere euren gain daudelarik. Hala ere, estatuei ezinezkoa izango litzaieke egoera hau sostengatzea konplize ezberdinen laguntzarik eta babesik gabe eta, kasu honetan, aipamen berezia merezi dute Euskal Herriko hedabide ezberdinek, euskal preso politiko bat une honetan hiltzorian aurkitzen den bitartean, euren isiltasunak agerian uzten baitu herri honen jazarpenean jokatzeko duten papera, eragile politiko ezberdinen isiltasunarekin bat egitearekin batera. Antza denez, telebistan agertzen ez dena ez da existitzen eta maxima horri jarraiki zaio Txikitoaren borroka ere, bere egoera eta bere alde burutzen ari diren dinamikak era irmoan ezkututzen ari diren heinean.

Hori dela eta, eurek begiak irekitzeko eta informatzeko prestutasun eza dutenez gero, dei egiten diogu Euskal Herri Langileari urriaren 30ean, ostiralean, Bilboko EITB-ko atarian 17:30etan burutu behar den kontzentrazioan parte hartzera. Darabiltzaten itsukeriari eta isiltasunari aurre egin eta herri honen zapalketak dakarren errealitate gordina euren atera eramateko garaia baita!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/concentracion-viernes-30-17-30